SOLOGANA GIZARTE ETXEA

# LUDOTEKAREN ARAUDIA



## SARTZEKO MODUA

- 0tik 8 urtera bitarteko adina duten haurrenaisialdi premiak betetzera zuzendutako espazioa da. 0tik 3 urtera bitarteko haurrei pertsona heldu batek lagundu beharko die uneoro.
- Ludotekara sartu ahal izateko, eguneko edo urteko bono bat eskuratu beharko da, behin horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu eta gero.

## ERABILERA ARAUAK

- Ludotekaren erabiltzailearen gurasoak edo tutoreak izango dira adin txikikoek materialak egokiro erabiltzeko arduradunak.
- Ludotekan jatea debekaturik dago, berariaz baimendutako jarduereta n izan ezik.
- Era berean, galarazita dago haurren gurditxo edota aulkiekin sartzea.
- Ludotekaren arduradunen jarraibideak errespetatu beharko dira.
- Saioa amaitutakoan, parte-hartzaileak arduratuko dira materialak batzeaz, arduradunaren ikuskapenaz edota laguntzaz.
- Gaixotasun infekto-kutsakorrak dituzten haurrak ezin izango dira ludotekara sartu.
- Ludotekan izena emateak jostailuen mailegua doan erabiltzea erraztuko du. Adin txikikoen gurasoak edo tutoreak jostailuaren erabileraren arduradunak izango dira ludotekatik ateratzen den momentutik itzultzen den arte.